



PRENTSA OHARRA: 2021-03-24

Euskal eta quebectar zinema ziklo trukaketa batek emango dio hasiera Saison Québec – Pays Basque egitasmoari

- Joan-etorriko kultur denboraldi honek bi herrialdeen arteko loturak estutzea du helburu**
- Covid-19ak eragindako egoerak programaren gauzatzea atzeratu duen arren, konpromisoei eutsi izana azpimarratu dute antolatzaileek**

Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak; Isabelle Dessureault, Quebeceko Iberiar Penintsularako ordezkariak; Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak eta Joxean Fernandez, Euskadiko Filmategiko zuzendariak Saison Québec – Pays Basque (Québec - Euskadi denboraldia), Quebeceko eta Euskadiko hiri nagusietan 2021. eta 2022. urteetan zehar burutuko den programa kultural eta artistikoa, aurkeztu dute gaur Donostiako Tabakalera. Joan-etorriko egitasmo honen helburua da euskal kultura eta sorkuntza garaikideari Quebecen leiho bat irekitzea eta, era berean, Quebeceko sortzaileen lana Euskadin erakustea, hizkuntza, kultura eta artearen bidez bi herrialdeen arteko harremana estutzea jomuga. Etxepare Euskal Institutuak eta Quebeceko Kultura eta Komunikazio Ministerioak bideratu dute ekimena.

Egitasmo honek Scotland Goes Basque programaren lekukoa hartu behar zuen 2020an, baina azkenean 2021 eta 2022 urteen artean gauzatuko da. Covid-19ak eragindako egoerak proiektua atzeratu duen arren, Etxepare Euskal Institutuko



zuzendari Irene Larrazak egitasmoa aurrera eramateko bi aldeek erakutsi duten borondatea azpimarratu du, eta “konpromisioari eutsi” diotela adierazi.

Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren hitzetan, “Saison Québec – Pays Basque programari esker, euskal kultura ikusgai egongo da Quebecen, eta gure herria eta kultura, herrialde kreatibo bezala proiektatzeko aukera izango dugu. Era berean, euskal eta quebehtar kultur eragileen arteko harremana eta ezagutza estutzeko balioko digu, programaren baitan egingo diren ekimenak elkarlan proiektuak baitira”.

Ekimenak, kultura, sorkuntza garaikidea eta hizkuntza ardatz hartuta, diziplina anitzeko eskaintza zabala aurreikusten du, beti ere Covid-19ak eragindako egoeraren bilakaerari lotuta. Proposamen honen bidez euskal kultura eta sorkuntzaren aberastasuna ezagutzeko aukera izango du Quebecoko publikoak eta Quebecoko sorkuntzaz gozatzeko parada izango du euskal ikuslegoak. Halaber, kultur eragileen arteko lankidetzak, eta artista, sortzaile eta kultur industriaren hartu emana sustatuko da. Izan ere, 30etik gora dira hitzordu ezberdinetan elkarlanean ari diren euskal eta quebehtar eragileak.

Datozen hilabeteetan diziplina anitzetan izango dira euskal leihoak Quebecoko jaialdi, programazio eta kultur gunetan, hala nola, literaturan, arte eszenikoetan, musikan eta zineman, eta kongresu akademiko bat ere burutuko da Laval Unibertsitatean. Proiektuetako zenbait abian dira jada.

Etxepare Euskal Institutuak sustatutako proiektu hauek gauzatzeko elkarlanean ari diren eragileen artean daude EIZIE, Mintzola, Bertsozale Elkarteak, Azkuna Zentroa, Euskal PEN Kluba, Euskal Kultur Erakundea (EKE), Dantzagunea, Dantzaz Konpainia, Tabakalera, Euskadiko Filmategia, Musikagileak, Bitamine Faktoria, eta baita Quebecoko jaialdi eta erakusleihoetan arituko diren sortzaile eta konpainiak.

Quebecen aldetik, berriz, Nazioarteko Harremanetarako eta Frankofoniarako Ministerioa, Kultura eta Komunikazio Ministerioa eta Conseil des Arts et des Lettres



du Québec (CALQ) daude, euskal sortzaileak hartuko dituzten hainbat jaialdirekin batera.

Quebeceko zinema zikloa Euskadiko Filmategian

Saison Québec – Pays Basque egitasmoaren lehenbiziko mugarría Euskadiko Filmategiak, Cinémathèque Québécoisen laguntzarekin, antolatu duen Quebeceko zinema zikloa izango da.

Ziklo honek hiru hilabete beteko ditu Euskadiko Filmategiaren programazioan, eta ekoizpen garaikidea du ardatz nagusi. *Pour la suite du monde* (Pierre Perrault, Michel Brault, 1963) Quebeceko zinema modernoaren oinarri kontsideratzen den filmarekin abiatuko da zikloa. Bigarren emanaldian, Anne Claire Poirier errealizadorearen *De mère en fille* (1968) proiektatuko da, Quebecen film luze bat zuzendu zuen lehen emakumea izan zen hura.

Quebeceko zinema pittinka zabaldu da gure pantailetan eta adibide-pare bat eskaini nahi izan ditu Filmategiak. *Le déclin de l'empire américain* (1986) filmak jarri zuen nazioarteko erakuslehoan Denys Arcand, lurralde horretako zinemagile emankorrenetakoa. Eta zinemagile-belaunaldi berrira etorrira, Xavier Dolanek 19 urterekin filmatu, idatzi eta ekoitzi zuen bere opera prima: *J'ai tué ma mère* (2009), proiektatuko da.

Quebeceko zinematografia garaikidea aztertzean, okerra izango litzateke ekoizpenen aniztasuna ez azpimarratzea eta nabarmentzea. Thriller bat egongo da: *Vic + Flo ont vu un ours* (2013), Denis Côtérena. Aipagarria da, halaber, *coming of age* delakoaren joera, eta, hemen, Geneviève Dulude-De Cellesen *Une Colonie* (2018) eta Anne Émondren *Jeune Juliette* (2019) izango ditugu.

Hondo politikoa duten ekoizpenetan ere bada aniztasun estetikorik. Ildo horretan, Félix Dufour-Laperrièreren *Ville Neuve* (2018) animazioa, Myriam Verreaulten *Kuessipan* (2019) eta Sophie Derasperen *Antigone* (2019) filmak ikusi ahal izango dira. Zinema



independentea ere ez da lagin eklektiko honetatik kanpora geldituko *L.A. Tea Time* (Sophie Bédard Marcotte, 2019) filmarekin.

Zikloa apirilaren 1ean abiatuko da Tabakalera (Donostia) eta apirilaren 3an Bilboko Arte Ederren Museoan, eta ekainaren 24an eta 26an amaituko da hurrenez hurren. Sarrerak 3,5€ -ren truke eskuratu ahal izango dira egoitzetako leihatiletan edota www.sarrerak.tabakalera.eus eta www.museobilbao.com webguneetan. Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniazko edota euskarazko azpituluekin.

Zinema ziklo honek itzulerako bidaia izango du, irailean, osasun egoerak baimentzen badu, Cinémathèque Québécoisen egingo den euskal zinema zikloarekin. *Tasio* (1984), Montxo Armendariz; *Vacas* (1992), Julio Médem; *Ander* (2009), Roberto Castón; *Amama* (2015), Asier Altuna; *Un otoño sin Berlín* (2015), Lara Izagirre; *Irrintziaren oihartzunak* (2016), Iratxe Fresneda; *Handia* (2017), Jon Garaño eta Aitor Arregi; *Dantza* (2018), Telmo Esnal; *Oreina* (2018), Koldo Almandoz; *Black is Beltza* (2018), Fermin Muguruza; *Hil Kanpainak* (2020), Imanol Rayo; eta *Erlauntza* (2020), Mireia Gabilondo, filmak proiektatuko dira.

Quebec: lehentasunezko lurraldea

Saison Québec – Pays Basque egitasmoak 2017. urtean, Iñigo Urkullu lehendakariak Quebecera egindako bidaia instituzionalean, hango Lehen Ministro zen Philippe Couillardekin sinatutako MOU edo Elkar-Ulermenerako Memorandumean du jatorria. Izan ere, Quebec, Euskadiren nazioartekotzeko estrategian lehentasunezko bazkidea baita, besteak beste, Euskadirekin, aniztasun kultural eta linguistikoaren babesa, berrikuntzaren aldeko apustua, eta ingurumenarekin eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko konpromisoa partekatzen dituelako. Akordio horretan, ingurumena, garapen ekonomikoa eta berrikuntzarekin batera, kultur esparruan bi herrialdeen arteko lankidetzan sakontzeko helburua jasotzen da, eta Saison Québec – Pays Basque da, hain zuzen, bi herrialdeen arteko lankidetzaren emaitzetako bat.



Etxepare Euskal Institutuko ordezkariak hiru aldiz egon dira Quebecen egitasmoari forma emateko, eta 2019ko uztailean Euskadi-Québec kultur topaketa profesionalak burutu ziren Gasteiz, Bilbo eta Donostian bi herrialdeen arteko kultur trukaketak sustatu eta kultur erakusleihoak eratzeko helburuarekin. Hori izan zen Saison Québec – Pays Basque antolatzeko lehen urratsa. Halaber, Lehendakaritzak eta Quebecoko Kultura eta Komunikazio Ministerioak dirulaguntza deialdiak atera dituzte egitasmo honen baitako kultur jarduerak laguntzeko.

Kultur Konexioak: kulturaren bidez herrialdeen arteko elkarrizketa sustatzen

Etxepare Euskal Institutua 2019. hasi zen Euskadiren kanpo harremanetarako eta nazioartekotzerako estrategikotzat identifikatutako lurraldeei modu berezian erreparatzen. Hala sortu ziren Kultur Konexioak, nazioarteko harreman horietan kultur dimentsioa txertatu, herrialde eta kultura horiekin loturak estutu eta harreman iraunkorrak bideratu, sortzaile eta kultur eragileen artean zubiak eraiki eta lankidetzak sendotu, eta eremu kultural eta akademikoan hartu-emana sustatzeko.

Filmak

Quebecoko zinema zikloa apirilaren 1ean hasiko da eta 11 film eskainiko ditu.

2021/04/01 (19:00) [TABAKALERA>Zinea]

2021/04/03 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

POUR LA SUITE DU MONDE (Pierre Perrault, Michel Brault, 1963). Kanada. JBAES. 105'.

2021/04/08 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/04/10 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

DE MÈRE EN FILLE (Anne Claire Poirier, 1968). Kanada. JBAES. 76'.

2021/04/15 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/04/17 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]



EL DECLIVE DEL IMPERIO AMERICANO –Le déclin de l’empire américain– (Denys Arcand, 1986). Kanada. JBAES. 101’.

2021/04/22 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/04/24 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

YO MATÉ A MI MADRE –J’ai tué ma mère– (Xavier Dolan, 2009). Kanada. JBAES. 96’.

2021/04/29 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/05/01 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

VICEK ETA FLOK HARTZ BAT IKUSI ZUTEN –Vic + Flo ont vu un ours– (Denis Côté, 2013). Kanada. JBAEU+ JBAEN. 95’.

2021/05/13 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/05/15 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

UNE COLONIE (Geneviève Dulude-De Celles, 2018). Kanada. JBAES. 102’.

2021/05/20 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/05/22 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

VILLE NEUVE (Félix Dufour-Laperrière, 2018). Kanada. JBAES. 76’.

2021/06/03 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/06/05 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

KUESSIPAN (Myriam Verreault, 2019). Kanada. JBAES. 117’.

2021/06/10 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/06/12 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA>Auditoriuma]

ANTIGONA –Antigone– (Sophie Deraspe, 2019). Kanada. JBAEU. 109’.



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

2021/06/17 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/06/19 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA> Auditoriuma]

JULIETTE GAZTEA –Jeune Juliette– (Anne Émond, 2019). Kanada. JBAEU. 97’.

2021/06/24 (19:00) [TABAKALERA> Zinea]

2021/06/26 (19:00) [BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA> Auditoriuma]

L. A. TEA TIME (Sophie Bédard Marcotte, 2019). Kanada. JBAES. 85’.

JBAES: jatorrizko bertsioa gaztelaniazko azpituluekin.

JBAEU: jatorrizko bertsioa euskarazko azpituluekin.

JBAEN: jatorrizko bertsioa ingelesezko azpituluekin.

Quebecoko Iberiar Penintsulako Ordezkariekin hitz egin nahi izanez gero:

Maria Jesus Bronchal

T: 93 476 42 58

Maria-Jesus.Bronchal@mri.gouv.qc.ca

Info+

Mikel Lasa

Etxepare Euskal Institutua

Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1

Donostia / San Sebastián

T: 943 023 400 / M: 688 670 217

komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus